



2022/03/02KO UDALBATZAREN EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2022/03/02
Hasiera ordua: 17:45
Amaiera ordua: 18:20

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Gorka Astondoa Altuna
Maria Cristina Etxenausia Irure
Santiago Balantzategi Beitia
Ana Maria Martiarena Arregi
Iban Herrarte Arana
Oihana Ameskoa Perez

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa
Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, 2022 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUA.	3
2. HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.	3
3. ONARTZEA TALDE SOZIOKULTURALAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2022 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.	3
4. ONARTZEA AUZOETAKO JAIK DIRUZ LAGUNTZEKO 2022 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.	3
5. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA EGITEA.	4
6. ONTZAT EMATEA UDALAREN GIZARTE-ZERBITZUEN PRESTAZIOA BEHIN-BEHINEAN MANTENTZEKO KONTSEILUAREN ABENDUAREN 26KO 904/2016 ERABAKIAREN LAUGARREN LUZAPENA EGITEA.	4
7. ARAMAIOKO UDALAREN JABETZAKO LANDA-BIDEEN ETA KARGA-LEKUEN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.	6
8. ONARTZEA UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZA ETA MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN ESPEDIENTEA.	7



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, 2022 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUA.

Alkateak aurkeztu du 2022 urteko ekitaldiari dagokion aurrekontu egitasmoa. Esan beharra dago, laburbilduz, aurrekontu egitasmoa egin dela, indarrean dagoen 3/2004 Foru Arauak, otsailaren 9koak, Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak agindutakoarekin bat eta bertan jasotzen diren dokumentuek osotzen dutela.

Halaber, aipatutako dokumentazio horren zati adierazgarrienaren kopia bidali zitzaizen aurretiaz bilkurako kide guztiei eta, horretaz gain, dagokion batzordean azaldu ziren egitasmoaren muina eta ildo nagusiak. Azpimarragarria da, indarrean dagoen legediaren arabera, aurrekontu orokorraren egitasmoak jasotzen dituela bi erakunderen aurrekontuak: batetik, Aramaioko Udaleko aurrekontua; eta, bestetik, Aramaioko Argindar Banatzailea, S.A.rena (azken horren aurrekontua onartzea bere administrazio kontseiluari dagokio).

Alkateak laburpena egiten du, Aramaioko Udalaren berariazko aurrekontuari buruz, kapitulu eta partida adierazgarrienak aipatuz. Baita ere, azpimarratzen du, ondorengo aurreikuspenak jasotzen dituela: batetik, sarrerak 2.670.882,19.-€ (iazkoarekin konparatuz, %46,92ko igoera); eta, bestetik, gastuak, 2.670.882,19.-€ (iazkoarekin konparatuz, %46,92ko igoera).

Juan Antonio Peña Orobengoak hitza hartu eta, esaten du, Ogasun Batzordean jadanik aurkeztu zituztela beraien proposamenak 2022ko aurrekontuan jasotzeko. Proposamen horien zerrenda, bertan jasotzen da:

Inbersioak	Aurrekontua (€)
Ametzuko bidaren konponketa. Kontzeptu separatua sartzea.	26.000
Pintadak kentzeko partida handiagoa, ez bakarrik eraikin publikoak garbitzeko	5.000
Eguneko zentroa handitzeko egitasmo	10.000
Egoitza. Bideragarritasun azterketa	10.000
Udalerriko Irisgarritasuna hobetzeko lanak	20.000
Udalerriko aparkalekuen azterketa	15.000
Arrasateko kolektorearekin konexioa	10.000
Guztira	103.000

Alkateak ondorengo erantzuna ematen die proposamenei, bere udal taldearen izenean:

1. Ametzuko pista. Horri ez diote zentzu praktikorik ikusten. Beste hainbat konponketak lehentasuna duela horren aurrean.
 2. Pintadak. Batzorde bat deitu zen gai horretaz aritzeko, halabaina, ez ziren bertaratu. Ez dute ikusten horma pribatuak garbitzeari ekitea, besteen artean, aurrekari arriskutsua izan daitekeela uste dute.
 3. Eguneko zentroa. Foru Aldundiarekin hitz egin zen baliabide horri buruz eta itxaron aldian dago.
 4. Egoitza edo erresidentzia baten beharra. Arabako Foru Aldundiak egina du gizarte zerbitzuen mapa, horretarako eginak omen ditu hainbat kalkulu eta, hori guztiarekin bat, Aramaion erresidentzia bat egiteari atea itxi zion eta ez dauka ate hori berriz irekitzeko asmorik. Foru Aldundiak inolako irizpide aldaketarik izaten badu, helduko diote bide horri.
 5. Irisgarritasuna hobetzeko lanak. Zeintzuk? Zehaztu egin behar dira. Udalak egina du irisgarritasunari buruzko azterlana eta bertan jasotakoak exekutatzeko, lehentasunak kontuan izanda eta ahal den neurrian.
 6. Aparkalekuen azterketa. Aramaion ez dago aparkaleku beharrik. Arazoa da jendeak gaizki aparkatzen duela. Ez dutela jakin, horri aurre egiten.
 7. Arrasateko kolektorearekin konexioa. Azkeneko uztailaz geroztik Foru Aldundiarekin hitz egiten ari dira gai horri buruz. Orain, bilera baten zain daude, inbertsio planean sartua omen dutelako jada.
- (Oihana Ameskoa Perez zinegotziak alde egin beharra izaten du eta ez da bilkura osoan berriz azaldu).



Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta, adierazten du, borondate kontua dela. Herritar guztiak onartuko luketela beraien jabegoa txukuntzea. Bestalde, eraikin publikoei dagokionean, gutxienez, pintadak kentzeko ez dela ezer behar, pentsatu, garbitu eta listo. Horretarako ez dagoela inongo bileraren beharrik.

Alkateak erantzuten dio, jabetza publikoei eragiten dienari dagokionez, bideratua dagoela. Kontua da, beharrezkoa ikusten dela definitzea zer egingo den eraikin pribatuetan eragina duten pintadekin. Irizpide bat adostu beharra dagoela.

Pedro Elosegui erantzuten dio irizpidea argia dela: pintadak kentzea.

Ana Maria Martiarena Arregi eta Santiago Balantzategi Beitia zinegotziek adierazten dute ezin dela sistematikoki egin, irizpide batekin jokatu beharra dagoela eta sor litezkeen aurrekarien arriskua ekidin.

Alkateak gaineratzen du, eraikin publikoen garbiketaren aurrekontua onartua dagoela baina, hala ere, udalak kanpoko enpresa batengana jotzeko beharra duen bakoitzean gertatu ohi den legez, atzeratu egiten da enpresa hori Aramaion bertaratu eta lanak egikaritzea.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Hasierako onarpena ematea 2022ko udal aurrekontu orokorrari. Ondorengoa da aurrekontuaren laburpena:

- 2022 ekitaldiko udal aurrekontu propioa

GASTUEN EGOERA		SARREREN EGOERA	
1. Langileen ordainsariak	521.095,36 €	1. Zuzeneko zergak	470.000,00 €
2. Ondasun arruntan eta zerbi. erosk	1.031.964,65 €	2. Zeharkako zergak	20.000,00 €
3. Interesak	6.000,00 €	3. Tasak eta bestelako sarrerak	172.598,83 €
4. Transferentzia arruntak	200.568,41 €	4. Transferentzia arruntak	1.135.279,11 €
5. Kreditu globala	107.271,15 €	5. Ondare sarrerak	189.532,18 €
6. Inbertsio errealak	803.482,62 €	7. Kapital transferentziak	683.472,07 €
7. Kapital transferentziak	500,00 €		
<u>Guztira</u>	<u>2.670.882,19 €</u>	<u>Guztira</u>	<u>2.670.882,19 €</u>

- 2022 ekitaldiko AAB enpresa publikoaren aurrekontua

GASTUEN EGOERA		SARREREN EGOERA	
1. Langileen ordainsariak	59.679,79 €	3. Tasak eta bestelako sarrerak	421.498,68 €
2. Ondasun arruntan eta zerbi. erosk	232.365,17 €		
6. Inbertsio errealak	129.453,72 €		
<u>Guztira</u>	<u>421.498,68 €</u>	<u>Guztira</u>	<u>421.498,68 €</u>

- 2022 ekitaldiko bateratutako aurrekontu orokorra

GASTUEN EGOERA		SARREREN EGOERA	
1. Langileen ordainsariak	580.775,15 €	1. Zuzeneko zergak	470.000,00 €
2. Ondasun arruntan eta zerbi. erosk	1.264.329,82 €	2. Zeharkako zergak	20.000,00 €
3. Interesak	6.000,00 €	3. Tasak eta bestelako sarrerak	594.097,51 €
4. Transferentzia arruntak	200.568,41 €	4. Transferentzia arruntak	1.135.279,11 €
5. Kreditu globala	107.271,15 €	5. Ondare sarrerak	189.532,18 €
6. Inbertsio errealak	932.936,34 €	7. Kapital transferentziak	683.472,07 €
7. Kapital transferentziak	500,00 €		
<u>Guztira</u>	<u>3.092.380,87 €</u>	<u>Guztira</u>	<u>3.092.380,87 €</u>



Bigarrena.- Agintzea, dagokion iragarkia argitaratzea Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta hamabost eguneko epea irekitzea epealdi horretan interesatuek espedienteaz aztertu eta udalbatzari egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, 3/2004 Foru Arauak, otsailaren 9koak, Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 15.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, halaber, epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsitaz joko dela, beste erabakiren bat hartu beharrik gabe.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, EH Bilduko zinegotzien aldeko 6 botoekin eta EAJ-PNVko zinegotzien aurkako 2 botoekin, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

2. HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Alkateak hitza hartu eta gogorarazten du, azken urteetan hirilurren balio gehikuntzaren zergaren aurkako hainbat epai irten direla. Azkenekoak, bertan behera utzi zuen esandako zergaren egungo eraentza.

Hartara, gaia landu du EUDELeK eta balio gehikuntzaren zerga baliatu ahal izateko, zerga arautzen duen udal ordenantzan hainbat aldaketa egitea iritzi dio aproposena. Landu den testuak, zerga kalkulatzeko sistema aldatu egiten du eta, halaber, epaiek agindutakoa betetzen du. Ordenantza aldaketa egingo duen testu proposamenak horrela dio:

“HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Ezarri beharreko araudia

Udal honek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta eskatu du, indarreko ordenantzaren arabera eta Arabako Toki Ogasunak arautzeari buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailean eta Zergei buruzko 4/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoarekin bat etorrira.

2. artikulua. Lurralde-eremua.

Honako ordenantza hau Aramaioko udalerrri osoan ezarriko da.

II.- ZERGAGAIA

3. artikulua.- Zergagaia

1.- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga bat da, eta hiri-lurren balio-gehiak zergapetzen du, lursail horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzearen ondorioz, edo jabaria mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreale eratu edo eskualdatzearen ondorioz.

2.- Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira hiri-lurtzat:

- a) Hirigintza arloko plangintzak hirikotzat, urbanizatutzat edo horien baliokidetzat sailkatzen edo definitzen dituenak.
- b) Lurzoru urbanizagarritzat jotzen diren lursailak, edo lurralde eta hirigintza arloko antolamendurako tresnek lurzoru urbanizatuaren egoeran sartzea aurreikusi edo horretarako aukera eman dutenak, betiere sektore edo eremu espazial mugatuetan sartuta badaude. Aurrekoek gain, horrelako izaera duten gainerako lurzoruak barne hartzen ditu, horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza arloko tresna onartzen den unetik aurrera.
- c) Nekazaritza-legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak, betiere zatikatze horrek nekazaritza-erabilera indargabetzen badu, eta horrek ez badu landa-izaera aldatzen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

3.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako ezaugarri berezikiotzat sailkatutako ondasun higiezinetakoa lurren balio-gehiak zerga honen pean egingo dira.

III.- APLIKAZIO EREMUTIK KANPO

4. artikulua.- Zergari lotuta ez daudenak



Honako hauek ez dira zerga honen pean egongo:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landa-lurren balio-gehikuntzak. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirikotzat jo behar diren lursailek izango duten balio-gehikuntzaren mende egongo da, katastroan edo haren erroldan halakotzat jasota egon edo ez.
2. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ekarritako ondasun eta eskubideen ekarpenak, haien alde eta horien ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak eta ezkontideei beren ondasun komunaren ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Ez da zergari lotuta egongo honako hauen artean ondasun higiezinak eskualdatzen direnean ere: ezkontideak; maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideak; eta ezkontzaren deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa dagoenean epaiak betetzearen ondorioz, seme-alaben alde egindakoak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein dela ere.

3. Lursailen eskualdaketak, horiek eskualdatu eta eskuratu direneko balioen artean gehikuntzarik ez dela egon egiaztatu bada.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatu nahi duen erakundeak eskualdaketa aitortu eta eskualdaketa edo eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu beharko ditu. Ondorio horietarako, erakunde interesduntzat hartuko dira ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, kasu bakoitzean hurrengo balio hauetako handiena hartuko da kontuan: eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasotakoa edo, hala badagokio, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Gainera, ondorio horietarako, ezin izango dira eragiketa horiek zergapetzen dituzten gastu edo zergak zenbatu.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin bat eskualdatzen denean, ondorio hauetarako honako hau hartuko da lurzorua baliozkatuz: zergaren sortzapen-datan luraren katastro-balioa guztizko katastro-balioarekiko ordezkatzeko duen proportzioa aplikatuz ateratzen den balioa. Gainera, proportzio hori eskualdatze-balioari eta, hala badagokio, eskuratze-balioari aplikatuko zaio eta bi hamartarrez adierazi beharko da.

Eskuraketa edo eskualdaketa irabazi-asmorik gabekoa izan bada, aurreko lerrokatik ezarritako arauak aplikatuko dira eta, hala badagokio, konparatzeko lehenago aipatutako bi baloreetatik lehena hartuko da kontuan, hau da, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren aitortutakoa.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren araututako araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketetatik eratorritako hiri-lurra eskualdatzen direnean, foru-arau horren 111. artikuluan aurreikusitakoaren babesean ekarritako lursailei buruzkoak izan ezik, jardueradar batean integratuta ez daudenean, haren hemezortzigarren xedapen gehigarriaren arabera.

IV.- SALBUESPENAK

5. artikulua.- Salbuespenak

1. Zerga honetatik salbuetsita daude egintza hauen ondorioz agertzen diren balio-gehikuntzak:

- a) Zortasun-eskubideen sorrera eta eskualdatzea.
- b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 2/2021 Foru Dekretuaren 4.1 k) artikuluan aurreikusitako salbuespena ezartzearen ondorio diren ondasunen eskualdaketak, horien jabeek edo eskubide errealeko titularrek higiezin horiek iraunarazteko, berroneratzeko edo eraberritzeko obrak beren kargura egin dituztela egiaztatzen dutenean.

2. Era berean, dagozkion balio-gehikuntzak salbuetsita egongo dira, hura ordaintzeko betebeharra honako erakunde hauei dagokienez:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, Estatuko erakunde autonomoak eta lurralde-administrazio horietako antzeko izaera duten zuzenbide publikoko erakundeak.
- b) Udal hau eta gainerako toki-erakundeak (udalerrien barrukoak zein udalerririk gabekoak), udalaren baitako zuzenbide publikoko erakundeekin batera, horiek Estatuko erakunde autonomoen antzeko izaera dutenean.
- c) Ongintzazko edo irakaskuntza arloko ongintzazko erakundeak.
- d) Indarrean dagoen legeriaren arabera eraturako Gizarte Segurantzaren eta Mutualitate eta Bahitetxeen erakunde kudeatzaileak.
- e) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortuta duten erakundeak.
- f) Administrazio-emakida itzulgarrien titularrak, horiei atxikitako lursailei dagokienez.



- g) Gurutze Gorria eta erregelamendu bidez zehaztutako antzeko beste erakunde batzuk.
- h) Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra duenean, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 18. artikulua 3. eta 4. ataletan xedatutakoaren arabera.

Lurrak eskualdatzen badira edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eratzten badira eta irabazi-asmorik gabeko erakunde batek kostu bidez egiten baditu, zerga horren salbuespena egiteko, lursail horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Era berean, salbuespen hori aplikatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeek abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 16. artikulua 1. paragrafoan araututako aukera baliatu dutela Udalar jakinaraztea eta Foru Arau horren II. tituluan jasotako zerga-araubide bereziari buruzko baldintza eta balizkoak betetzea ezinbestekoa izango da.

V.- SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua.- Subjektu pasiboa

1. Honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisa:

- a) Lursailen eskualdaketa edo irabazpidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eraketan edo eskualdaketa, lursaila eskuratzen dutenak (pertsona fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren edo gozamen-ahalmenaren bidezko gozamina gauzatu gabeko jaraunspenak edo dagokion eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaien pertsonak.
- b) Lursailen eskualdaketa edo ordainbidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eraketan edo eskualdaketa, lursaila eskualdatzen dutenak (pertsona fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren edo gozamen-ahalmenaren bidezko gozamina gauzatu gabeko jaraunspenak) edo dagokion eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duten pertsonak.

2. Aurreko paragrafoaren b) letran aipatutakoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira Foru Zerga Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen den pertsona fisiko zein juridikoak edo erakundeak, bai eta testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena gauzatu zain dagoen jaraunspenak ere, baldin eta lursaila eskuratzen badute edo dagokion eskubide erreala haien alde eratu edo eskualdatu bazaie, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

3. Eskualdaketa hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza "ordainean ematearen" edo hipoteka, epai edo notario bidezko betearazpenaren ondorioa denean eta horren higiezina eskuratzen duena kreditu-erakunde bat edo hipoteka-maileguak edo hipoteka-kredituak emateko jardura egiten duen edozein erakunde denean, hura hartuko da zergadunaren ordezkotzat subjektu pasibotzat eta ordezkotzat ezin izango dio zergadunari eskatu ordaindutako zergen zenbatekoa.

Paragrafo honen ondorioetarako, hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza "ordainean emateko" ekinza hori zordunaren ohiko etxebizitza erosteko zorren bermea abalatzeko egiten duenean ere zergadunaren ordezkotzat subjektu pasibotzat hartuko da.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioak gertatzeko, zordun edo bermatzaile eskualdatzaileak edo abal-emaileak edo haren familia-unitateko beste edozein kidek, etxebizitza besterentzea saihestu ahal izateko unean, zerga-zor osoa ordaindu ahal izateko besteko ondasun edo eskubiderik ez izatea beharrezkoa da. Baldintza hau betetzen dela ulertuko da.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 87. artikulua 8. paragrafoan halakotzat definitutakoa.

Familia-unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoa beteko da. Ondorio horietarako, ezkontza Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izateko bikotearekin parekatuko da.

VI.- ZERGA OINARRIA

7. artikulua.- Zerga-oinarria zehaztea

1. Zerga honen oinarria sortzapenaren unean agerian jarritako eta gehienez ere 20 urteko epean hiri-lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Hurrengo 2. paragrafoan xedatutakoa baztertu gabe, hura zehazteko, sortzapenaren uneko lurraren balioa I. Eranskinean ezarritako koefizientearekin biderkatuko da, ordenantza honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu.



2.- Subjektu pasiboak eskatuta, ordenantza honetako 4.3 artikuluko prozeduraren arabera, balio-gehikuntzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio-gehikuntzaren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

8. artikulua.- Lurraren balioa.

Lurraz sortzapenaren unean duen balioa arau hauetan ezarritakoaren arabera izango da:

1.-Lursailen eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako finkatutakoa izango da. Hala ere, babes publikoko etxebizitzaren erregimenari atxikitako higieziari dagozkien lurren balioa kalkulatzeko, haren salmenta-prezioari 0,2ko koefizientea aplikatuko zaio.

2.-Jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eraketan eta eskualdaketan, I. eranskinean jasotako koefizienteak ezarriko zaizkio aurreko 1. paragrafoan definitutako balioaren zatiari; zati horretan islatuta dago, hain zuzen, eskubide horien balioa, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutako arauari jarraiki kalkulatuakoa.

Ondorio horietarako, arau hauek bete beharko dira:

- a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko 100eko 2, ehuneko 70 gainditu gabe.
- b) Biziarteko usufruktuetan, balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70 dela zenbatetsiko da, gozamenaren 20 urte baino gutxiago dituzenean eta, adinak gora egin ahala, beste urte bakoitzeko 100eko 1 gutxituko da, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.
- c) Pertsona juridiko baten alde eraturako usufruktua, 30 urtetik gorako edo zehaztu gabeko eperako ezarri bada, zergei dagokienez, suntsiarazteko baldintzari lotutako jabetza osoaren eskualdatzea dela ulertuko da.
- d) Aurretik eraturako gozamen-eskubide baten eskualdaketan, aurreko arauari jarraiki eratu zen egunean esleitutako ehuneko bera aplikatuko da.
- e) Jabetza soilaren eskubidearen balioari dagokienez, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldearen arabera zenbatuko da. Era berean, aldi baterakoak diren biziarteko usufruktuetan, jabetza soilaren baloratzeko, aurreko lehenengo zenbakiko arauetatik balio txikiena ematen diona ezarriko da.
- f) Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealek balioa kalkulatzeko, ondasunen balioaren 100eko 75 aplikatuko da. Ondasun horiei ezarri zitzaizkien aldi baterako edo biziarteko gozamenak balioztatzeak arauak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

3. Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago igotzeko edo lurzoruaren azpian eraikuntza egiteko eskubideak eratzeko edo eskualdatzeko, azalera-eskubide errealek dagoenik eragin gabe, ordenantza honen I. Eranskinean jasotako urteko koefizienteak 7. artikuluko honen 1. paragrafoan zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, baldin eta, horri dagokienez, eskualdatzeko eskrituran finkatutako proportzionaltasun-modulua islatzen badu edo, halakorik ezean, lur arrasean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azalaren eta behin eraikita horiek duten azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzearen ondoriozkoa.

4. Derrigorrezko desjabetzeen kasuetan, ordenantza honen I. Eranskinean jasotako urteko koefizienteak lurraz balioari dagokion balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, 8. artikuluko honetako 1. paragrafoan zehaztutako lurraz balio txikiagoa denean izan ezik; izan ere, halakoetan balio justua lehenetsiko da.

5.- Balorazio kolektiboko prozedura orokor baten ondorioz katastroaren balioak aldatuko direnean, lurzoruaren edo, aurreko paragrafoan jasotako arauari jarraiki, dagokion lur-zatiaren balioztat hartuko da katastroko balio berriek udal bakoitzak ezarritako murrizketa ezartzetik ateratako zenbatekoa. Murrizketa hori katastroko balio berrien indarraldiaren lehenengo bost urteetako bakoitzari aplikatuko zaio.

Murrizketaren gutxienezko muga 100eko 40 izango da eta gehienekoa, aldiz, 100eko 60; Nolanahi ere, gutxienezko muga aplikatuko da udalak murrizketarik ezarri ez badu. Udal honek murrizketa-tasa desberdina ezarri ahal izango du hura indarrean egongo den bost urteetako bakoitzerako.

Paragrafo honetan aurreikusitako murrizketa ez zaie aplikatuko balorazio kolektiboko prozeduraren ondoriozko katastroko balioak ordura arte indarrean zeudenak baino txikiagoak direnei.

Katastroko balio murriztua ezin da inolaz ere izan balorazio kolektiboko prozeduraren aurretik lurzoruak zuen katastroko balio baino txikiagoa.



9. Artikulua.- Balio-gehikuntza sortu den aldia

Balio-gehikuntza sortu den aldia gehikuntza hori agerian jarri den urte-kopurua izango da.

Aplikazio-eremutik kanpoko kasuetan, Foru Arauak bestelakorik adierazi ezean, ondorengo lur-eskualdaketa batean agerian jarritako balio-gehikuntza sortu den aldia kalkulatzeko, aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren aurreko sortzapena gertatu zen eguna hartuko da eskuratze-datatzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezinaren ondorengo eskualdaketa, lurren balio-gehikuntza agerian jarri den urte-kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia.

Igarotako urte-kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, urte-zatiak kontuan hartu gabe. Sortu den aldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hilabete osoen kopurua kontuan hartuta hainbanatuko da, hau da, hil-zatiak kontuan hartu gabe.

10. Artikulua.- Koefizienteak

Sortzapenaren unean lurzoruak duen balioari aplikatu beharreko koefizienteak, balio-gehikuntza sortu den aldiaren arabera, I. eranskinean jasotakoak izango dira.

VII.- KARGA TASA, KUOTA ETA HOBARIK

11. Artikulua.- Karga-tasa

Aplikatu beharreko karga-tasak kasu bakoitzean dagozkionak izango dira, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

12. Artikulua.- Kuota eta hobariak

1. Zerga honen kuota zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da.

2.- Zergaren kuota likidua kuota osoari dagokion hobaria aplikatzearen emaitza izango da, hala badagokio.

3.- Bonifikazio aplikatu ahal izateko, interesdunek eguneratuak izan beharko dituzte beraien betebeharrak udal ogasunarekin, ogasunarekin orohar eta gizarte segurantzarekin, eskaera egiten den egunean. Horrela izan ezean, interesdunen eskaera ukatua izango da.

VIII.- SORTZAPENA

13. Artikulua.- Sortzapena

1. Honako kasu hauetan sortzen da zerga:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostuen bidez edo doan, bizien artean edo heriotzaren ondorioz, eskualdaketa egunean.

b) Jabaria mugatzeko edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa egiten den egunean.

2. Aurretik xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira eskualdatze-datatzat:

a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa egiletsi denean eta, agiri pribatuetan, agiri horiek erregistro publikoan sartu edo inskribatu direnean edo, bere lanbidea dela eta, funtzionario publiko bati eman zaionean.

b) Heriotza-ziozko eskualdaketa, kausatzailea hil deneko data.

3. Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurak edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zerga berari itzultzeko eskubidea izango du. Beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatu bada. Interesatuek elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko asmoa dagoela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak eginbeharrak ez betetzearen ondorioz adierazi bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

4. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua efekturik gabe utzi badute, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta egintza zergapeko egintza berritatzat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze-ekitaldian adostutakoa eta bai eskariari amore-emate hutsa.

5. Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga



erreserba gisa eskatuko da, aurreko ataleko arauari jarraituz, dagokion itzulketa egiteko baldintza betetzen denean.

6. Testamentu-ahalmenetan edo gozamen-ahalmenetan, pertsona jakin batek jarauntsiz ondasunen gozamenerako eskubidea bizi artean duenean, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, oinordetza ireki deneko sortze-datarekin, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenen arauak aplikatuz.

Testamentu-ahalmen edo gozamen-ahalmenetan, gozamena botere hori erabiltzean azkentzen bada, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazioa, heriotza gertatzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Hala ere, testamentu-ahalmena gauzatzeko epe jakin bat badu, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauen arabera egingo da, ahalmen hori egikaritzeko ezarritako gehieneko epean.

b) Beste likidazio bat, testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauari erreparatuta, kausatzailea hil zenetik igarotako aldiarengatik, aurrekoagatik ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuta, eta aldea gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Eta b) hizkiari dagokion likidazioa oinordekoena egiten den unean egin beharko da, testamentu-ahalmen edo gozamen-ahalmen oinordekoak direla adierazten badu, edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik.

7. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, xedapen-egintzen ondorioz testamentu-ahalmena egikaritzeko edo biziarteko gozamen bat egikaritzeko dauden jaraunspenek eragindako lursailen eskualdaketetan, eskualdatze horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakarte, ordenantza honetako xedapen orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Oinordetza Zergaren subjektu pasiboa izango da testamentu-ahalmena egikaritzetik edo gozamen-ahalmena egikaritzetik geratzen dena, eta zerga eskualdaketa gertatzen den unean sortuko da.

b) Zerga-kuota zehazteko, likidazio bat egingo da, eskualdaketaren unean sortuko dena, kausatzaileak lurra erosi zuenetik igarotako denboragatik. Gainera, diru-sarrera gisa eman zena kontuan hartuko da 6. paragrafoan xedatutakoaren arabera egindako likidazioan ordaindutakoa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera xedapen-egintzen ondorioz, testamentu-ahalmena egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez eskuratutako lursailak eskualdatzen direnean, likidazio bat egingo da, eta eskualdaketaren unean sortuko da, jaraunspenaren bidez lurra eskuratu zenetik igarotako denboragatik.

c) Testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena modu ezeztazinean erabiltzen denean, edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen denean, jaraunspen bidez eskuratuak izan arren, testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena egikaritu zain dauden lurra eskualdatzen badira, ekainaren 25eko 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak adierazi duen bezala, likidazio bakarra igorriko zaio gozamendunari, aldi baterako edo biziarteko gozamenaren arauen bidez. Lursailaren izaeraren arabera, egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez lursaila eskuratu zuenetik testamentu-ahalmena gauzatu arte igarotako denboragatik. Hobarria testamentu-ahalmena erabiliz azkentzen den kasuetan, likidazio bat igorriko zaio gozamendunari aldi baterako gozamenaren arauen bidez, lurra testamentu-ahalmena egikaritzeko dagoen jaraunspenak eskuratu zuenetik igarotako denboragatik. Likidazio hori jaraunspen dagozkienak egitean egin beharko da, baldin eta testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena erabiltzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunspenak badira.

IX.- ZERGA KUDEATZEA

14. Artikulua.- Zerga kudeatzeko sistema

Zerga kudeatzeko Udal honek aitorten-sistema ezartzen du, honako atal hauetan xedatutakoaren arabera:

1.- Subjektu pasiboek aitortpena aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina. Eredu horretan likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak eta gainerako datuak agertuko dira.

Adierazpenarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Bizien arteko egintzei buruzko eskualdaketak: zergak ordaintzeko betebeharra sortu duen egintza edo kontratua formalizatu duen dokumentuaren kopia, publikoa zein pribatua.

b) Heriotzaren kausazko eskualdaketak, jaraunspena esleitu duen eskrituraren kopia edo halakorik ezean:

-Zatiketa-koaderno pribatua, halakorik balego.

- Azken borondatearen ziurtagiria.



-Testamentua edo, hala badagokio, jaraunsele abintestatuko adierazpena.

c) Eskualdatutako higiezinaren eskuraketaren tituluen kopia.

Bi eskualdatze-motetarako eta, gainera, dohainik bada, ondasunen balorazioa jasotzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren aitortpenaren kopia.

2.- Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz loturarik ez badago, beren beregi jasoko da hori adierazpenean.

3.- Subjektu pasiboak ordenantza honen 7. artikuluan 2. atalean xedatutakoarekin bat etorritik erabakitzen badu zerga-oinarria, beren beregi jasoko da aitortpenean. Hautatutako aukera ezin izango da aldatu zerga-administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu, zergapekoak horren berri formala izanda

4.- Testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena egikaritu zain dauden jaraunspenetan, aurreko betebeharrak betetzea horien administratzaileari dagokio. Administratzaileak aitortpena sinatu beharko du eta dagokion zerga-zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalmena gauzatu zain duen jaraunspenaren administratzailea edota gozamen-ahalmena egikaritu zain daukan erabiltzailea.

5. Eskatutako salbuespenak edo hobariak agiri bidez justifikatu beharko dira.

15. artikulua.- Epeak

Aitortpena honako epe hauetan aurkeztu beharko da, zerga sortu den egunetik zenbatzen hasita:

a) Bizien arteko egintzak direnean, epea hogeita hamar egun baliaduneko izango da.

b) Heriotzagatik egintzen kasuan, epea sei hilabetekoa izango da, eta urtebetara arte luzatu ahal izango da subjektu pasiboak hala eskatuz gero.

16. artikulua.- Dokumentazio gehigarria eskatzea

Udalak hogeita hamar eguneko epean zergaren likidazioa gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die pertsona edo erakunde interesdunei. Epe hori beste hamabost egunez luzatu ahal izango da, interesdunak hala eskatuta. Gainera, epe horien barruan egindako errekerimenduei erantzuten ez dietenek zerga arloko arau-hausteak egin eta horiei dagozkien zehapenak izango dituzte, dokumentu horiek adierazpena egiaztatzeko beharrezkoak diren heinean. Dokumentu horiek interesdunak bere onerako alegatutako inguruabarrak frogatzeko bidea baino ez badira, errekerimendua ez betetzeak likidazioa egitea ekarriko du, alegatutako eta justifikatu gabeko inguruabarrak alde batera uzteaz gain.

17. artikulua.- Beste pertsona edo erakunde batzuk jakinarazteko duten betebeharrak

14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hurrengo hauek zerga subjektu pasiboan epe berberetan ordaindu dela jakinarazi beharko diote Udal Administrazioari:

a) Ordenantza Fiskal honetako 6.1. artikuluan a) letran jasotako kasuetan, bizirik daudenen arteko negozio juridikoan eman badira, emalea edo eskubide erreala eraten edo eskualdatzen duen pertsona.

b) Aipatutako 6.1. artikuluko b) letran jasotako kasuetan, eskuratzailerak edo eskubide erreala eratu edo eskualdatu zaion pertsona.

18. artikulua.- Notarioen betebeharrak

Notarioek nahitaez bidali beharko diote udalari, hiru hileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, aurreko hiru hileko naturalean baimendutako agiri guztiak jasotzen dituen zerrenda edo aurkibidea. Zerrenda edo aurkibide horrek, nolana ere, esku hartzen duten alderdien datuak jaso beharko ditu: izen-abizenak, NAN-zenbakia eta helbidea. Dokumentu horietan, zerga hau udalerrian ordaindu dela agerian uzten duten egitate, egintza edo negozio juridikoak azalduko dira, azken borondatezko egintzak izan ezik. Halaber, epe beraren barruan, sinadurak ezagutzeko edo legitimatzeko asmoz aurkeztu zaizkien dokumentu pribatuen zerrenda bidali beharko dute. Dokumentu horietan egitate, egintza edo negozio juridiko berberak jasota daude. Artikulu honetan ezarritakoak ez du baztertuko Arabako Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzarako betebeharrak orokorra.

Notarioek Udalari bidaltzen dioten zerrendan edo aurkibidean, ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia adierazi beharko da, erreferentzia hori eskualdatzen diren ondasunekin bat datorrenean.

Notarioek esanbidez ohartaraziko diete bertaratuei, baimena ematen duten agiritan, interesdunek zergaren aitortpena aurkezteko duten epea eta aitortpenik ez aurkezteagatik dituzten erantzukizunak.

19. artikulua.- Aitortpena aurkezteko errekerimendua



1. Deklaratu ez diren zergapeko egitateen berri duenean udalak, 15. artikuluan adierazitako epeen barruan, deklarazio hori egiteko errekerimendua egingo die interesdunei. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

2. Lehen aipatutako errekerimendua egin ondoren, interesdunek ez badute kasuan kasuko aitorpena aurkezten, Udalak espedientea ofizioz izapidetuko du, bere esku dauden datuekin, eta dagozkion likidazioa egingo du eta, hala badagokio, sarrera-epeak eta dagozkion errekurtsoen adierazpena adieraziko ditu. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

X.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek ALAHOOn argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak eta indarrean jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

XI.- ONARTZEA

Ordenantza hau Udaltzarak onartu zuen behin betiko, 2022ko martxoaren 2an egindako Udaltzarrean.

I. ERANSKINA KOEFIZIENTEAK

Sortu den aldia (urteak)	Koefizientea
Urtebete baino gutxiago	0,14
1	0,13
2	0,15
3	0,16
4	0,17
5	0,17
6	0,16
7	0,12
8	0,10
9	0,09
10	0,08
11	0,08
12	0,08
13	0,08
14	0,10
15	0,12
16	0,16
17	0,20
18	0,26
19	0,36
20 urte edo gehiago	0,45



II. ERANSKINA.

KARGA TASAK

Zerga-oinarriari aplikatuko zaion karga-tasa	%30
--	-----

Besterik gabe, aurkezten du Antolakuntza eta Ogasun Batzordeak Udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen udal ordenantzaren aldaketari.

Bigarrena.- Udal Ordenantzaren aldaketa hori jendaurrean jartzea eta dagokion iragarkia egitea, jakinarazteko, behin behineko izaeraz onartu den ordenantza jendearen eskura jarrita dagoela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, halaber, erreklamaziorik ez badela aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Antolakuntza eta Ogasun Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

3. ONARTZEA TALDE SOZIOKULTURALAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2022 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta aurkezten du Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak, talde soziokulturalentzat diru-laguntzen deialdia egiteko 2022 urtean.

“KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRULAGUNTZA. 2022KO DEIALDIA.

OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea.

Aurrekontuaren muga barruan, gastuen finantzaketan laguntzea Aramaioko udalerrian 2022an antolatzen diren kultura, euskararen sustapen eta kirol eta/edo gizarte arloetako jarduerai eta, orobat, helburuak zehaztea herritarrei bermatzeko, baldintza berberetan eskuratu ahal izatea prestazio hauek, udal eskumenekoan osagarri edo ordezko diren zerbitzuak eta jarduerak egiteko.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 17.080,16 eurokoa da.

2.- Onuradunak.

Diru-laguntza deialdi honetara elkarrekin, kultura eta/edo gizarte taldeak eta entitate publiko zein pribatuak aurkez daitezke, baldin eta irabazteko asmorik ez badute eta aurreko puntuan zehaztutako ekintzen artekoen baten bat bada; Aramaion eduki beharko dute egoitza, eta gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Legez erabaturik eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarrekin eta Entitateen Erregistroan inskribaturik egotea.
- Beren programak eta aurrekontuak Administrazio Publikoaren publikoaren ikuskaritzapean jartzea.

Herritarrak ere aurkeztu ahal izango dira, banaka, baldin eta maiz edo noizbehinka biltzen badira adieraziko motako jarduerak egiteko eta aurrekoari kalterik egiten ez badio.

3.- Diruz lagundu daitezkeen programak eta jarduerak.

Diru-laguntza hauek kultura, aisia, gizarte ekintza, hezkuntza, euskara eta kirol arloetan antolatzen diren jardueretarako emango dira.

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

- Eriji edo sexu arrazoiengatik baztertzeko duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzeko duenik.
- Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratatu txarrak jasaten duenik.
- Ingurugiroa kaltetzen dutenik
- Euskararen erabilera lehenesten ez dutenik



Ezinbestekoa izango da barne eta kanpo komunikazioak euskaraz izatea.

4.- Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Laguntzak jaso nahi dituzten elkarteek eskaera aurkeztu beharko dute, honako agiri hauekin batera:

- Eskaera-orri ofiziala(Eranskina)
- Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia, elkartearen ordezkari den aldetik, eta elkartearen IFZ.
- Erakundearen estatutuen fotokopia eta legez erata eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria (eskaera egiten den lehenengo aldia edo aldaketaren bat egiten denean soilik aurkeztu beharrekoa).
- Aurreikusitako ekitaldien programa, urtero egiten den aldirako (lortu nahi diren helburuak, jarduera bakoitzerako aurreikusitako lekua, data eta iraupena, nori zuzenduta dagoen eta jardueren onuradunen kopurua). (II. Eranskina)
- Diru-laguntzaren bidez garatzekoak diren jardueren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Diru-laguntza jaso ahal izango duen programa garatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako diru-laguntzen zinpeko aitortpena edo, badaude, emandako diru-laguntzena eta ematear daudenena.
- Zerga zorrik ez duela eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria. (III.eranskina)

Azkeneko bi agiri horiek, Diru-laguntzei buruzko 38/03 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. eta 3. paragrafoetan jasotzen diren onuradun izaera lortzeko debekuen eraginpean ez egotearen aitortpenak ordezkatu ahal izango ditu. Aitortpen hori administrazioko agintariaren aurrean aurkeztuko da. (II. Eranskina)

Diru-laguntza hauen eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egintzat hartuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agiritan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

5.- Eskaerak aurkezteko epealdia.

Eskaerak aurkezteko hogeitun egun naturaleko epealdia egongo da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izaera puntuala edo apartekoa duten jarduera edo programetarako eskaerak, hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar dira. Nolanahi ere, eskaerak urteko azaroaren 18rako aurkeztu behar dira.

Salbuespen gisa, xedatutako epetik kanpo aurkeztutako eskaerei diru-laguntzak eman ahal izango zaizkie, baldin eta horretarako dirurik badago, eta Aramaioko Udalaren helburu publikoetarako interesekoak badira.

Diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoen ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

6.- Balorazio irizpideak.

Aramaioko Udalak emango dituen diru-laguntzak ekitaldiak aurrera eramateko elkarteek izaten duten defizitaren zati bat estaltzeko izango dira, udalaren ustez diru-laguntza jaso ezin duten gastuen aurrekontua kendu ondoren.

Diru-laguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk egongo deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei diru-laguntza emateko.

6.1.- Eskaeran adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

6.2.- Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, IV. eranskinean ezarritakoaren arabera izango dira.

✘ Ondorengo hauek ez dira gastu konputagarriak puntuazio baremoaren arabera laguntza kalkulatzeko, ez eta justifikatzeko modukoak ere, baina bai jardueraren gastu osoa konputatzeko:

- Janariak oro har.

7.- Eskaerak aztertzea eta ebaztea.

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

7.1.- Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna kultura arloko zinegotzia izango da.

Balorazio batzordea kultura batzorde informatzaileak osatuko du.



Ebazteko eskumena Alkateak dauka.

7.2.- Azterzea eta ebaztea.

Bideratzaileak jarduera hauek egin behar ditu:

- Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu.
- Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.
- Espedientea ikusita, bideratzaileak ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta.
- Ebazpen proposamenak puntu hauek eduki beharko ditu, gutxienez: diruz lagundu daitekeen proiektua, zenbatekoa, lortutako puntuak eta justifikatzeko epea.
- Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.
- Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekurtsioak, zer organo judizialki aurkeztu behar dizkieten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Eskaerak ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitatz jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 9.c) artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak finkatutako testua).

8.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezingo da inoiz jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Jasotako diru-laguntza berriro aztertu ahal izango da, diru-laguntza osagarriak edo beste erakunde batzuen diru-laguntzak jaso direla jakindakoan, bai eta bestelako diru sarrerarik izan bada ere.

9.- Zuritzea eta ordaintzea.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 75, ematea ebazten den unean.
- Gainerakoa, diruz lagundutako jarduerak eta programak egin direla justifikatzen denean; horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
 - 1) Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren **memoria-likidazioa eta justifikazio kontu erraztua**; datu hauek adierazi behar dira:
 - Egindako jarduerak.
 - Aldiak: egunak eta orduak.
 - Parte-hartzaileak.
 - Helburuak eta balorazioa
 - Jarduerak sortutako sarrera eta eragindako gastu guztien balantzea. Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).
 - 2) Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztagiri (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuak. Fakturak edo egiaztagiriak onartuak izateko, ondorengo jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFa; eroslearen identifikazio datuak (dirulaguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFa; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZA eta faktura zenbakia.

Udalak egoki irizten dituen dokumentu gehigarriak eskatu ahal izango dizkie onuradunei.

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

- 3) **Zinpeko aitorpena**: xede bererako edozein administrazio edo erakunde edo entitate publikorengandik dirulaguntzak edo laguntzak jaso(k)o dituen edo ez. Beste dirulaguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazioek eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.



4) Diruz lagundutako jarduerari buruzko **programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.**

Aurkeztutako ordainagiriaren kopurua diruz lagundutako aurrekontua baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako jardueraren bat burutu ez bada, onuradunak horren berri emango dio udalari, gainerako zenbatekoa udalaren diruzaintzan sartzeko edo, bestela, diru-laguntza murrizteko.

Justifikazioa abenduaren 30a baino lehen aurkeztu behar da, deialdia zein urteri dagokion, urte hartan.

10.- Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea.

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltasuten edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.”

Besterik gabe, Alkate-lehendakariak aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako diktamena:

“Lehena.- 2022an talde soziokulturalei diru laguntzak banatzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

Bigarrena.- 2022ko talde soziokulturalen artean banatzeko diru-laguntzen gastua onartzea, 17.080,16 eurokoa.

Hirugarrena.- Dagokionean, deialdia zabaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. ONARTZEA AUZOETAKO JAIK DIRUZ LAGUNTZEKO 2022 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.

Alkate-Lehendakariak aurkezten du Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak, Auzoetako jaiak diruz laguntzeko deialdia egiteko 2022 urtean:

“AUZOETAKO JAIK. 2022KO DEIALDIA.

OINARRIAK.

LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea:

Aurrekontuaren mugaren barruan, Aramaioko udalerrriaren eremuan 2022ko auzoetako jaiak edo erromeriak antolatzeko diru-laguntzak ematea.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 13.500 eurokoa da.

BIGARRENA.- Onuradunak:

Aramaioko auzo elkarteak (auzo alkateen bidez) eta Oletako Batzar Administratiboa.

HIRUGARRENA.- Baldintzak:

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

- Erljio edo sexu arrazoiengatik baztertzen duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzen duenik.
- Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratu txarrak jasaten duenik.
- Ingurugiroa kaltetzen dutenik
- Euskararen erabilera lehenesten ez dutenik

LAUGARRENA.- Dirulaguntzen izaera:

Diru-laguntzak borondatezko izaera izango dute, beraz, Udalak ez du aurkezten diren eskakizun guztiei dirulaguntza emateko obligaziorik, nahiz eta deialdi honen oinarriak bete.

BOSTGARRENA.- Dirulaguntzen zenbatekoa:

Diru-laguntzak programaren kostuaren eta kostu hori ordaintzeko dauden baliabideen araberakoa izango da, eta garrantzitsua da kontuan izatea sustatzaileak berak berezko baliabideak sor ditzakeela Herri Administrazioen bitartez. Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo du inolaz ere gastuaren %80koa baino gehiago izan.

Dirulaguntzak, aurkeztutako eskaeren balorazioaren menpe egongo dira. Balorazio hori, Kultura Batzordeak egingo du Kultura teknikariaren laguntzarekin. Azken honek, auzoek aurkeztutako dirulaguntzen txostena eta aurreko urteetan emandako dirulaguntzen erlazioa egingo du.

Batzordeak, eskaeren eta txostenaren arabera, auzo bakoitzaren eskaeraren balorazioa egingo du



Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak (bakarrik udalarena zein beste entitate batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera) ezin du inolaz ere elkarte edo entitate onuradunak egingo duen jardueraren kostua gainditu.

Behin eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, Kultura Batzordeak proposamena Alkateari luzatuko dio.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa:

Auzo bakoitzari dagokion zenbatekoa jakin eta gero, ordainketa banaketa honako hau izango da:

- Egitarauaren hasieran dirulaguntzaren ehuneko 75.
- Ehuneko 25, jardueraren txostena eta sortutako gastuen fakturak aurkezterakoan eta ontzat ematerakoan.

Hasieran emandako ehuneko 75a osorik ez bada justifikatzen, diru hori itzuli beharko dio udaletxera eta ez du gainerako ehuneko 25a jasoko.

Salbuespen moduan eta arrazoi justifikatuagatik dirulaguntzaren totala ordainketa bakarrean egiteko aukera dago, beti ere ordainagiriak eta justifikazio txostena entregatuz eta Kultura Batzordeak horrela proposatzen badu.

ZAZPIGARRENA.- Eskaerak:

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duten Elkarteez edo norbanakoek honako hau aurkeztu beharko dute,

- Eskaera-orri ofiziala eta inprimakia. Jai bakoitzeko inprimaki bat bete beharko da.
- Harremanetarako pertsonaren helbide elektronikoa
- Jaietako ekintzen programa
- Gastuak eta diru sarrerak (Arabako Foru Aldundia, Vital Kutxa,edo bestelako entitateetik lortutakoak, kuotak,...)
- Elkartearen kasuetan NIFaren fotokopia eta norbanakoen kasuan NANaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko Diruzaintza Orokorrarekin dituen betebeharretan eguneratuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria; horren orde zinpeko aitopene bat aurkeztu ahal izango da, betebeharrak fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela dioena. Komenigarri irizten bada, bi ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie akatsak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera arxibatu egingo da, eta dirulaguntza ukatuzat joko da.

ZORTZIGARRENA.- Epea:

Aurkezteko bi epe desberdin egongo dira eta eskatzaile bakoitzak erabakiko du noiz aurkeztu:

- Ekainak 1

edo

- Irailak 3

BEDERATZIGARRENA.- Justifikazioa eta ordainketa:

Dirulaguntza bi ordainketetan jasoko da:

- Ehuneko 75 eskaera ontzat hartzen denean.
- Gainerakoa, aurreikusitako ekintzak egin direla justifikatzen denean, honako hau aurkeztuz:
 - Ekintzen memoria-likidazioa (eredua udaletxean eska daiteke).
 - Likidazio ekonomikoa: zehaztu gastuak eta sarrerak (3.Erasnkina)
 - Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztagiria (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuak. Fakturak edo egiaztagiria onartuak izateko, ondorengo jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFA; eroslearen identifikazio datuak (dirulaguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFA; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZa barne edo kanpo eta faktura zenbakia.
 - Esku orrien aleak. Ale horietan Aramaioko Udalaren laguntzaren berri eman beharko da.

Justifikazioa, **jaiak bukatu eta hilabeteko epea** egongo da udal bulegoetan entregatzeko.

Ebazpena eta jakinarazpena egiteko epea sei hilabetekoa izan da, beti ere, abenduaren 30a baino lehen.

HAMAIGARRENA.- Ulertzeko modua:

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Kultur Batzordeak ebatziko du zalantza.

HAMABIGARRENA.- Organo eskuduna:



Kultura Batzordea izango da espedientearen instrukzioa egingo duen organoa. Alkatea izango da dirulaguntzen ebazpena egingo duen organoa."

Besterik gabe, Alkate-lehendakariak aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako diktamena:

"Lehena.- Onartzea, 2022an auzoetako jaiak diruz laguntzeko deialdiaren oinarriak.

Bigarrena.- 2022ko auzoetako jaiak antolatzeko diru-laguntzen gastua onartzea, 13.500,00 eurokoa.

Hirugarrena.- Dagokionean, deialdia zabaltzea."

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA EGITEA.

Alkateak aurkezten du Antolakuntza eta Ogasun Batzordeak, EUDELeK egindako aholkua jarraituz, Udalbatzari egiten dion proposamena:

"Joan den 2021/12/29n, Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(...)Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneousotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021eko aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

Korporazioak, 2022ko martxoaren 2an eginiko Osoko Bilkuran, **ADOSTEN DU:**

Lehena.- Udal langileen ordainsariak handitzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2 (konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneousotasuna mantenduz).

Bigarrena.- Honakoaren berri ematea udal langileei."

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Antolakuntza eta Ogasun Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. ONTZAT EMATEA UDALAREN GIZARTE-ZERBITZUEN PRESTAZIOA BEHIN-BEHINEAN MANTENTZEKO KONTSEILUAREN ABENDUAREN 26KO 904/2016 ERABAKIAREN LAUGARREN LUZAPENA EGITEA.

Alkateak adierazten du, Arabako Foru Aldundiak eman duela abenduaren 28ko 845/2021 Erabakia, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren laugarren luzapena onartzen duena, 2022ko ekainaren 30era arte. Erabaki horren bidez onartzen da, Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriek gizarte zerbitzuak kudeatu izan dituzten moduan behin behinean eustea.

Aramaioko Udalak egin beharrekoa da, badagokio, luzapena ontzat ematea eta hartutako erabakiaren ziurtagarria Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea.

Erabakiaren testua gazteleraz bakarrik bidali dute Foru Aldunditik eta euskarazko ale bat ere eskatu zaie. Jasotako dokumentuak horrela dio, hitzez hitz:



“Aprobar la cuarta prórroga del Acuerdo 904/2016, del Consejo de 26 de diciembre para el mantenimiento provisional de la prestación de los servicios sociales municipales.

El nuevo reparto de competencias y, más concretamente, la distinción entre provisión de servicios de atención primaria y atención secundaria establecido por la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, así como la firme voluntad de garantizar la provisión de servicios sociales a la ciudadanía en tanto se seguía trabajando en la reordenación de los servicios que se venían gestionando de forma compartida entre la Administración Foral y local, motivaron que con fecha 26 de diciembre de 2016 el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava aprobara un acuerdo para el mantenimiento provisional de los servicios sociales, en los términos que se han venido gestionando por la Diputación y por los municipios del Territorio Histórico de Álava, con población inferior a 20.000 habitantes, el cual tenía una vigencia de 24 meses, esto es, hasta el 26 de diciembre de 2018.

Dicho acuerdo perseguía que, el derecho subjetivo de la ciudadanía alavesa al acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, quedara totalmente garantizado en tanto en cuanto, en un plazo máximo de 24 meses la Mesa Interinstitucional propusiera los recursos técnicos, económicos y jurídicos necesarios para la efectiva prestación de todos los servicios sociales en el marco competencial que a cada uno correspondía.

A partir de ese momento se empezó a trabajar en la reordenación y fórmula de gestión de los servicios del Territorio Histórico de Álava derivada de la nueva distribución competencial, y colaborando con las entidades locales con el objeto de cumplir con lo dispuesto en la Ley de Servicios Sociales, Decreto de Cartera y Plan Estratégico, todo ello, desde una perspectiva técnica, jurídica y de suficiencia financiera acorde con el Sistema Vasco de Servicios Sociales actual.

Durante el ejercicio 2018 se concluyó el trabajo correspondiente al Servicio de Ayuda a Domicilio, servicio de competencia municipal de acuerdo con la ficha 1.2 del Decreto de Cartera, para lo que los 50 municipios alaveses de menos de 20.000 habitantes adoptaron un acuerdo para delegar las competencias para el desarrollo de los procedimientos administrativos vinculados al referido servicio y cobro del correspondiente precio público, y encomendar la gestión integral de dicho servicio a la Diputación Foral de Álava, a través del Instituto Foral de Bienestar Social. Asimismo, aprobaron la ordenanza reguladora de la prestación del servicio de Ayuda a Domicilio y la ordenanza fiscal para regular la aplicación de sus precios públicos.

Estando pendiente de finalizar el resto de compromisos asumidos por las partes, la Comisión Territorial de Álava, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2018, acordó solicitar a la Diputación Foral de Álava la prórroga en dieciocho (18) meses más, esto es, hasta el 26 de junio de 2020, del Acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre, dicha prórroga fue igualmente aprobada mediante el Acuerdo 765/018 de 21 de diciembre del Consejo de Gobierno.

No habiendo sido posible durante la prórroga concedida llevar a cabo el trabajo pendiente y no siendo posible su abordaje en ese momento debido a la complicada situación planteada por el estado de emergencia sanitaria creado por el COVID-19, se propuso una segunda prórroga por la Diputación Foral de Álava y así lo ha aprobado por la Comisión Territorial de Álava en sesión celebrada el 16 de abril de 2020 que fue finalmente aprobada mediante Acuerdo 222/2020 de 26 de mayo.

Durante el ejercicio 2020 concluyó el trabajo correspondiente a los Centros Rurales de Atención Diurna de acuerdo con la ficha 1.7.1 del Decreto de Cartera, si bien su puesta en marcha se ha prolongado durante todo el ejercicio 2021. Así, estando pendientes el resto de compromisos mediante acuerdo 720/2020, de 29 de diciembre, del Consejo de Gobierno se acordó una tercera prórroga hasta el 31 de diciembre de 2021.

Durante el ejercicio 2021, aunque se ha avanzado en los trabajos necesarios para ello, no ha sido posible finalizar el resto de compromisos asumidos por las partes; por ello se considera oportuno tramitar una cuarta prórroga de seis (6) meses más, esto es, hasta el 30 de junio de 2022, del Acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre. El compromiso es finalizar los trabajos relativos a las viviendas comunitarias en el mes de marzo y concluir el resto para el 30 de junio, la tramitación administrativa se realizará de forma conjunta a la finalización de todos los trabajos.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Políticas Sociales, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO

Primero. Aprobar una cuarta prórroga hasta el 30 de junio de 2022, del Acuerdo 904/2016 del Consejo de Gobierno de 26 de diciembre, que aprobaba el mantenimiento provisional de los servicios sociales en los términos que se han venido gestionando por la Diputación y por los municipios del Territorio Histórico de Álava, con población inferior a 20.000 habitantes. En este periodo, la Mesa Interinstitucional constituida para la elaboración del Mapa propondrá los recursos técnicos, económicos y jurídicos necesarios para la efectiva prestación de todos los servicios sociales en el marco competencial que a cada uno corresponda, que se irá implantando progresivamente durante el periodo señalado.

Los servicios sociales que se incluyen son los siguientes:

- Ficha 1.3.A Servicios de intervención socioeducativa y psicosocial. Programas del ámbito de la prevención comunitaria y de la exclusión:

- Servicios para la inserción en la zona rural de colectivos en situación de riesgo de exclusión.

El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo por un lado, la derivación de las personas usuarias al referido servicio, con el correspondiente reconocimiento de derecho subjetivo, y por otro lado, la ejecución de la prestación del servicio mediante gestión indirecta.

- Ficha 1.3.B Servicios de intervención socioeducativa y psicosocial. Programas del ámbito de la protección a la infancia:

- Programa especializado en intervención familiar, servicio de atención psicológica y psicopedagógica y elaboración de informes de investigación y/o valoración de carácter psicosocial, todo ello para menores de edad en situación de riesgo leve o moderado de desprotección.



El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo por un lado, la derivación de menores en situación de desprotección leve y moderada, de competencia municipal, a los referidos programa/servicios y por otro lado, la ejecución de la prestación del servicio mediante gestión indirecta.

- Ficha 1.5. Promoción de la participación e Inclusión Social en el ámbito de los Servicios Sociales.

El Instituto Foral de Bienestar Social dispone de un servicio de prevención comunitaria, con tres personas técnicas repartidas en las diferentes Cuadrillas del THA. Su labor es homogeneizar los criterios e intervenciones en materia de prevención universal, indicada y selectiva, siendo la prevención universal de ámbito municipal.

- Ficha 1.9.1.2 Servicios de alojamiento-pisos de acogida para mujeres víctimas de violencia de género:

El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo en aquellas zonas rurales que no disponen del referido servicio por un lado, la derivación de las personas usuarias al referido servicio y por otro lado, la disponibilidad de pisos de acogida para la atención de las mujeres víctimas.

- Ficha 1.9.3 y 1.9.4 Servicios de alojamiento para Personas Mayores:

- Convenios con ayuntamientos para la gestión y mantenimiento de viviendas comunitarias.

El Instituto Foral de Bienestar Social viene asumiendo la derivación de las personas usuarias al referido servicio, con el correspondiente reconocimiento de derecho subjetivo, mientras que los Ayuntamientos se encargan de la prestación del mismo con la consiguiente financiación por parte de la Diputación Foral de Álava. Los trabajos correspondientes a este punto se finalizarán a 31 de marzo de 2.022.

Segundo. La efectividad del apartado primero de este Acuerdo quedará condicionada, respecto de cada Municipio, a la adopción, y consiguiente comunicación de certificado a la Diputación Foral de Álava, de la correspondiente conformidad por el órgano municipal competente.

Tercero. Trasladar el presente Acuerdo a los municipios a que hace referencia el apartado primero a los efectos de la adopción, en su caso, de lo dispuesto en el apartado segundo con anterioridad al 31 de enero de 2022.

Cuarto. Facultar al Diputado Foral de Políticas Sociales, para el desarrollo y la gestión de cuanto se dispone en el presente acuerdo.

Quinto. Contra el presente Acuerdo se podrá interponer Recurso Contencioso – Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a su notificación de conformidad con los arts. 44.1, 8.1 y 46.1 de la ley 29/98, de 13 de julio.”

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Gizarte Ongizate Batzordeak Udaltzari egiten dion erabaki proposamena:

Lehena.- Ontzat ematea Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 28ko 845/2021 Erabakia, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren laugarren luzapena onartzen duena, 2022ko ekainaren 30era arte.

Bigarrena.- Dagokion ziurtagiria helaraztea Arabako Foru Aldundiari, udaltzaren adostasunaren berri izan dezan.

Alkateak bozketa deitu eta Udaltzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Gizarte Ongizate Batzordearen proposamenez, ONETSI ETA BERE EGIN DU.”

7. ARAMAIOKO UDALAREN JABETZAKO LANDA-BIDEEN ETA KARGA-LEKUEN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Alkateak hitza ematen dio Santiago Balantzategi zinegotziari eta, horrek, egun indarrean dagoen araudiaren aldaketa nagusiak adierazten ditu. Laburbilduz, ondorengoak dira: karga-lekuei dagokien garrantzia eta babesa emateko asmoz, arautu egiten da horien erabilera; tasa eta fidantzen zenbatekoa ez da aldatzen, hots, urtarrilaren 1etik indarrean daudenak jarraitzen dute; araudi orokorraren aldaketak jaso dira; eta, halaber, udalaren aurretiazko eta ondorengo ikuskapen bisiten prozedura jaso da.

Ordenantza proposamen testuak horrela dio:

“ARAMAIOKO UDAL TITULARITATEKO LANDA BIDEEN ETA KARGADEROEN ERABILERA BEREZIA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Lehen artikulua.-

Udalarenak diren landa-bideetan ibilgailu astunek (bereziki, udal-barrutian kokatutako baso-ustiapenean diharduten egur- eta enborki- garraiorako ibilgailuek) sortzen dituzten kalteak direla kausa, eta, Udala Korporazioen Ondasunen Erregelamenduaren 77.Artikuluaren eta Toki Erregimeneko Oinarrien erregulazioa den 7/85 Legearen 25.2.d) Artikuluaren xedatutakoaren babesean, Aramaioko Udala bidezoraren erabilera arautuko du udalerraren interesak, eta, oro har, bizilagunenak babesteko.



Bigarren artikulua.-

Udalarenak diren landa-bideak erabiltzeko lizentzia hiru tona baino gehiagoko pisua duten ardatzeko ibilgailuek izango dute; ezingo da, inolaz ere, hiru ardatz baino gehiago duen ibilgailurik erabili. Ardatz-kopuruari dagokionez, aurreko trakzioko ardatza ere kontuan hartu behar da.

Landa-bideetan ezin erabili ahal izango da, inolaz ere, ardatzeko zortzi tona baino gehiago pisatzen duen ibilgailurik. Bidaia 30 Tonako karga onartuko da, gehienez, atoa barne hartuta; era berean, lizentziari lotuko zaio lur-mugitzea eragingo duen edozein bide erabilpen.

Kasu bakoitzean udalak atoa erabiltzeko aukera baloratuko du.

Hirugarren artikulua.-

Udal bideren bat erabili aurretik, dagokion lizentzia lortu beharko da udalean, honako datu hauek jasota:

- a) Aprobetxamendua egingo den lurraren jabearen identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea eta telefonoa.
- b) Aprobetxamendua egingo duen garraiolari edo kontratistaren identifikazio-datuak: enpresa, arduradun den pertsona, helbidea eta telefonoa.
- c) Materialak datozeneko lursailaren identifikazio-datuak (katastroaren poligono eta partzela, hedadura), eta baita burutzea aurreikusten den proiektuaren identifikazio-datuak ere plano batean bilduak; hala badagokio, egur-bilketarako tokia ere zehaztuko da.
- d) Garraiatu beharreko materialen bolumena estereoetan. Tasazio-kubikazio inprimakiaren fotokopia eta basogintzan aginpidea duen autoritateak luzatutako baso-mozketarako baimena gehituko dira.
- e) Lanen hasiera eta amaierarako aurreikusitako egunak.
- f) Eskaera-inprimakian adierazi beharko du udal karga-lekua erabiliko den ala ez, eta, hala bada, zein erabiliko den adierazi beharko du.
- g) Atoa behar izanez gero, adierazi atoi mota

Laugarren artikulua.-

0,43 €-ko tarifa edo tasa ezartzen da udaletako landa-bideetatik garraiatzen den estereo bakoitzeko, eta 42,15 €-ko gutxieneko tasa finkatzen da. Tasen zenbatekoa bide horiek mantentzeko eta hobetzeko erabiliko da.

Udal-lurretan egurrezko karga-lekua bat erabiltzen bada, 0,23 €-ko tasa ordaindu beharko da biltegiratutako estereo bakoitzeko, eta 22,54 €-ko gutxieneko tasa ezarriko da.

Bosgarren artikulua.-

Udal landa-bidea erabiltzeagatiko tasa alde batera utzita, eta sor litezkeen kalteei aurre egiteko berme gisa, nahitaezkoa izango da aldeztatik 1,67 €-ko fidantza gordailutzea estereo bakoitzeko, eta 421,43 €-ko gutxieneko fidantza ezartzea.

Udal karga-lekua erabiltzeagatiko tasa alde batera utzita, eta sor litezkeen kalteei aurre egiteko berme gisa, nahitaezkoa izango da aldeztatik 0,89 €-ko fidantza gordailutzea estereo bakoitzeko, eta 224,59 €-ko gutxieneko fidantza ezartzea.

Fidantza eskudirutan edo banku-abalaren bidez jarri beharko da.

Ordenantza honetan jasotako kopuru guztiak (tasa, abala, etab.) aldatu ahal izango dira, ordenantza fiskaletarako legez ezarritako prozedurari jarraituz.

Abal bereziak izango dira bidezoru desberdinak dituzten landa-bidetakoak; kasu bakoitzean abala aztertuko da eta, landa-bide berezitat auzo-bideak joko dira.

Garraiatu beharreko materiala beste genero batekoa balitz (harrobiko materiala, buztina...), egurraren gainean erabakitakoren arabera kalkulatu da ordaindu beharrekoa.

Seigarren artikulua.-

Lizentzia emateko prozedura ebazteko gehieneko epea 15 egunekoa izango da, lizentzia eskatzen denetik zenbatzen hasita.

Epe hori hasiko da zenbatzen eskaerak ordenantza honetan ezarritako baliozkotasun-baldintza guztiak betetzen dituzenean.

Lizentzia eman aurretik, udal langileek eta/edo zinegotziak ikuskapen-bisita egingo dute eskatutako erabilera baino lehen, eta landa-bidea erabiltzeko egoera eta egokitasuna baloratzeko txostena egingo da.

Zazpigarren artikulua.-



Fidantza lizentziaren titularrari edo fidantza jarri duen pertsonari itzuliko zaio, hark eskatuta eta erabilitako bidearen egoera aztertu ondoren.

Horretarako, udal langileek eta/edo zinegotziak ikuskapen-bisita egingo dute egindako erabileraren ondoren, eta landa-bidearen egoerari eta eragindako kalteei buruzko txostena egingo da.

Kalterik badago, txosten hori lizentziaren titularrari edo fidantzaren ipini duenari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, egin beharreko konponketak eta horiek egiteko epea adieraziko zaizkio.

Epe hori igaro eta eskatutako konponketak egin ez badira, Udalak betearazte subsidiarioa egingo du, obligaziodunaren kontura, jarritako fidantzaren zenbatekoa kenduz. Hori nahikoa ez bada, aldea eskatuko da, kalte guztiak estali arte.

Eragindako kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du suntsitutako ondasunen balioaren edo eragindako nariaduraren zenbatekoaren adinako kontuan.

Landa-bide bat baino gehiago erabiltzen bada eta horietako bati bakarrik egotzi ezin zaizkion kalteak badaude, erantzukizunak erabiltzaileen artean banatuko dira, garraiatutako materialen bolumenaren arabera.

Zortzigarren artikulua.-

Udal lursailen kargaleku bat erabiltzen bada, egurra ateratzen amaitu ondoren, apea edo gainerako mozketak guztien kargalekua 30 egun naturaleko epean utzi beharko da, gehienez ere.

Fidantza lizentziaren titularrari edo fidantza jarri duen pertsonari itzuliko zaio, hark hala eskatuta eta erabilitako udal karga-lekuaren egoera aztertu ondoren.

Horretarako, udal teknikari edo zinegotzi batek ikuskapen-bisita egingo du, egindako erabileraren aurretik eta ondoren, eta udal karga-lekuaren egoerari eta eragindako kalteei buruzko txostena egingo da.

Kalterik badago, txosten hori lizentziaren titularrari edo fidantzaren gordailatzaileari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, egin beharreko konponketak eta horiek egiteko epea adieraziko zaizkio.

Egurra pilatzeko prestatutako karga-leku partikularrak bide publikoetatik behar den distantziara jarriko dira, egurra kargatzen eta deskargatzen duten kamioiek bide gainean aparkatu gabe egin dezaten. Hau da, debekatuta dago egurra kargatzea eta deskargatzea kamioia bide publikoaren gainean aparkatuta dagoenean, berariazko baimenik izan ezean.

Bederatzigarren artikulua.-

Materialak ateratzen hasten den egunean edo ateratzen diren bitartean, baldintza klimatologikoen eta bidearen egoerak hala aholkatzen badute, Udalak egur ateratzea atzeratu ahal izango du, baldintzak onak izan arte.

Hamargarren artikulua.-

Aurreko artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, garraiolariak debekatuta izango du eguraldi txarreko aldietan zirkulatzea, eta behar diren neurriak hartuko ditu bidea segurtasun-baldintza egokietan eta beste erabiltzaile batzuentzat ibiltzeko moduan mantentzeko; horretarako, aprobetxamenduak irauten duen bitartean, beharrezkoak diren konponketak eta garbiketak egingo ditu. Bestela, Udalak egingo ditu, erabiltzailearen (garraiolariaren) kontura, eta, beharrezkoa izanez gero, udalak lizentzia kendu ahal izango du.

Nolanahi ere, onuradunek behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte zirkulazioari kalterik ez egiteko, eta ezin izango dute bidea enborrekin edo zuhaitz-adarrekin okupatu. Bide publikotik kendu beharko dituzte ibilgailuak bide horretan uzten dituzten produktuak, hala nola lurak, harriak eta abar.

Hamaikagarren artikulua.-

Ertzaintzak Ordenantza hau bete dadin arduratuko da, eta udalerriko bide publikoetatik ibilgailu astunekin dabilen edozein garraiolari horretarako dagokion udal-baimena edo bere kopia exijitu ahal izango die; horrelakorik izan ezean, garraiatutako materiala berehala geldiaraztea agindu ahal izango da.

Hamahirugarren artikulua.-

Ordenantza honetan araututako landa-bideak aldeztu aurretik udal-lizentziarik lortu gabe erabiltzen badira, dagokion zehapen-espeditentia irekiko da, Arabako Lurralde Historikoko landa-bideen erabilera eta zaintza arautzeko otsailaren 13ko 6/1995 Foru arauan xedatutakoarekin bat.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 8. xedapen gehigarriaren arabera, edozein administrazio publikok edo harekin lotutako edo haren mendeko edozein erakunde edo entitatek sinatutako hitzarmenak, indarraldi bat zehaztuta ez duten kasurako, edo indarraldi bat zehaztuta



edukita ere, lege hau indarrean jartzean iraupen mugagabeko isilbidezko luzapen bat ezarrita duten hitzarmenetarako, kasu horietan, hitzarmenaren indarraldia aurreko 2020ko urriaren 2ra artekoa da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira hemen finkatzen direnen kontra doazen xedapen guztiak, eta bereziki ALHAOn 2002ko martxoaren 20an argitaratutako "Aramaioko udal titularitateko landa bideen eta kargaderoen erabilera berezia arautzen duen ordenantza" eta horrek ondoren jasandako aldaketak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2022ko martxoaren 15etik aurrera indarrean sartuko da eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

TASA

	Estereoko	Gutxienekoa
Udal landa bideen erabilpena	0,43 €	42,15 €
Udal karga-lekuen erabilpena	0,23 €	22,54 €

FIDANTZA

	Estereoko	Gutxienekoa
Udal landa bideen erabilpena	1,67 €	421,43 €
Udal karga-lekuen erabilpena	0,89 €	224,59 €

Oharra: Tasa eta fidantzaren ordainketak egin beharko dira, landa bide edo karga-lekuaren erabilpena hasi aurretik."

Besterik gabe, aurkezten du Mendi eta Ingurumen Batzordeak Udaltzari egiten dion erabaki proposamena:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Aramaioko Udalaren jabetzako landa bideen eta karga-lekuen erabilera berezia arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Bigarrena.- Udal Ordenantzaren aldaketa hori jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia egitea, jakinarazteko, behin behineko izaeraz onartu den ordenantza jendearen eskura jarrita dagoela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, halaber, erreklamaziorik ez badela aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzarak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Mendi eta Ingurumen Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



8. ONARTZEA UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZTA ETA MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOAREN ESPEDIENTEA.

Alkateak gogorarazten du, azkeneko ohiko bilkuran (2022/01/27ko udalbatza) onartu zela, hasiera ematea Aramaioko Udalaren esku dauden Udal Kiroldedia eta beste hainbat udal guneren garbiketa, zaintza eta mantentze zerbitzua kontratatzeke espedienteari.

Udal zerbitzuek espedientea prestatu dute eta, horren barruan daude besteen artean, lizitazioa aginduko duten administrazio baldintza orri zehatzak eta baldintza teknikoen agiria.

Hartara, aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- UDAL KIROLDEGIA ETA BESTE HAINBAT UDAL GUNEREN GARBIKETA, ZAINZTA ETA MANTENTZE ZERBITZUAREN KONTRATUA lehiaketa bidez emateko espedientea onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

Bigarrena.- Kontratuaren xedea ezinbesteko zerbitzu bat denez, herritarren ongizate eta bizi kalitate duina bermatzeko eta egun ematen diren zerbitzuak etenik gabe, jarraikotasuna lortzeko asmoz, espedientearen presazko izapidetzea erabiltzea.

Hirugarrena.- Dagokion gastua onartzea.

Laugarrena.- Lizitazio-prozedura irekitzea; hain zuzen ere, prozedura irekiaren bidez, esleitzeko hainbat irizpide emanda: batetik, zerbitzuaren planifikazioa, balio iritziaren araberakoa dena; eta bestetik, eskainitako prezioa, automatikoki zenbatesteko irizpidea dena. Guztia, presazko izapidetzearekin bideratuko da.

Bosgarrena.- Lizitazio-iragarkia udalaren kontratatzailearen perfilean argitaratzea, parte-hartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitze aldera.

Seigarrena.- Lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta espedientean jasotzea lizitazio-iragarkia zein egunetan bidaltzen den.

Zazpigarrena.- Alkatea eskuordetzea ondokoak egin ahal izateko: eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatuari errekerimendua egiteko, tramite hutseko eginbideak aurrera eramateko, espediente honetako akats materialak zuzentzeko eta pleguetan ematen zaizkion gainontzeko ahalmenak egikaritzeko.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Zerbitzu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.